

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asteasu



Aurkibidea

Udalerria: Asteasu

Sarrera



Tolosako eskualdean kokatua,
Asteasu, Ernioko
mendioinean kokaturik dago.
Oria ibaian bere urak isurtzen
dituen haran berezi baten
erdiagunean kokatzen da.
16,6 Km²-ko azalera du eta
lotuak dauden bi gune txiki
dauzka: Goiko gunean,
Elizmendi, bere tontorrean
San Pedro eliza duen muino
txikia eta behekaldean,
Beheko Kalea. Udalak muga
egiten du Aiarekin
Iparraldetik, Larraul eta
Alkizarekin hegoaldean,
Zizurkil, Villabona eta
Anoetarekin ekialdean eta
Errezilekin mendebaldean.
Bertako euskara erdialdeko
euskararen azpieuskalki bat
da, Beterriko azpieuskalkia.

- **Biztanleak:** 1.492
- **Euskaldunak:** %80,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **17**
- Pasarteak: **110**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **110**

Proiektuak

- Beterriko kantak
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak

Hizlariak

Joxepa Agirreurreta Iraola (1929)



Zazpi senidetan hirugarrena, Joxepa Asteasuko Aldariaga "Aldaya" baserrian jaioa da. Sei urte zituen gerra hasi zenean, eta orduan txikia izanik ere, ondo gogoan ditu orduan pasatako beldurrak eta tristurak, eta areago gerra ondorenekoak. Asteasuko alkatearekin ezkondu zen, eta hamalau seme-alaba izan eta hazi zituen.

Carmen Elozegi Gragirena (1941)



Asteasuko Opin baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama nafarra, Beintza-Labaiengoa. Aitak igeltxoa egiten zen lantegian egiten zuen lan, igeltxoa zakutan sartzen. Kareia ere egiten zuten etxean. Etxea Asteasuko harrobiaren ondoan zeukaten, eta maiz entzuten zuten harria nola leherrarazten zuten. Sei senidetan zaharrena, Carmen Larraula ezkondu zen, Agerre Zahar baserrira.

Joxe Inazio Gabirondo Gabirondo (1930)



Asteasuko Intxusa baserrian jaioa. Lau senide ziren etxean, eta gerra aurretik aita hil zitzairen. Gerra ondorenean, ordea, ama berriz ezkondu zen eta beste zazpi seme-alaba izan zituen. Lehenik morroi ibili zen lanean, gerora, okindegi batean ere bai, Begoñako fraide-etxean ere aritu zen, baina gaztetan, itsasora joan zen lanera, Ternua aldera, bisigu-arrantzan.

Milagros Imaz Etxabe (1931)



Asteasuko Zalmiña baserrian jaioa. Aita anoetarra zuen, eta ama, aiarra. Zortzi senidetan laugarrena, hamahiru urterekin Pello Errotara joan zen neskame. Ondoren, osaba eta izebaren ardo almazenean aritu zen ardoa saltzen, Tolosan. Hogeita bat urterekin Zizurkilera ezkondu zen, Garmendia baserrira. Han hogeita hamar urte egin ondoren, Eliz Gain etxea erosi eta bertan jarri ziren bizitzen.

Rufina Irazu Amundarain (1923-2014)



Asteasuko Ureta baserrian jaioa. Hamar urterekin neskame joan zen Sorabillara (Andoain), eta esne partitzen ibili zen Andoainen. Oiartzunen ere ibili zen neskame. Gerra garaian, aldiz, Asteasun bizi izan zen. Anaia nazionalista zuen eta kartzelan izan zen; aita, bestalde, erreketeeek hil zieten. Baserria aurrera atera ahal izan zuten, hala ere. Eta gazterik, Larraulera ezkondu zen.

Joxe Irazu Garmendia *Bernardo Atxaga* (1951)



Bernardo Atxaga bezala ezaguna, Joxe Irazu Astesun jaio zen. Ama maistra izandakoa zen, eta aita arotza. Lehen ikasketak Asteasun bertan egin zituen, eta 1964an familia Andoainera joan zen bizitzera. Donostiako La Salle ikastetxean ikasi zuen Batxilergoa. Txikitatik zuen irakurtzeko eta idazteko griña, baina Gabriel Aresti ezagutzeak euskaraz idazteko bultzada eman zion. Bilbon berriro jaio zela dio Joxek: Bernardo Atxaga izen artistikoa du ordutik. 70eko hamarkadan hasi zen lanak argitaratzen, eta Pott literatur bandako kideetako bat izan zen. Ibilbide oparoa izan du (poesia, eleberria, narrazioak, saiakera, haur literatura...) eta idaztetik bizi den idazle bakarretakoa da euskal letretan. 'Obabakoak' (1988, Erein) da haren lanik ezagunena, idazlea -eta euskal literatura- nazioartean ezagutarazi zuena. Literatur ibilbideari buruz egin genion alkarrizketa, haurtzarotik hasi eta 90. hamarkadaren hasiera bitarteko tartea bereziki. Informazio gehiago: [Bernardo Atxagaren webgunea](#).

Fortunata Iturbe Lizaso (1932)



Asteasuko Zeindine etxean jaioa. Ondartza Barrenakoa zuen ama, eta aita Aitzekoa. Zazpi senidetan txikiena, zortzi urterekin umezain joan zen Asteasuko Sarobe baserrira. Ondoren, Beasaingo Senpereko etxe batean ere neskame lanetan aritu zen, eta gerora Legazpin ere bai hamaika urtez. Neskame lanak bukatutakoan, etxera itzuli zen anaiari laguntzera, eta han bizi izan zen ezkondu arte.

Maria Luixa Otegi Tolosa (1928)



Asteasuko Gorua baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Albizturkoa. 9 senide izan ziren eta bera bosgarrena zen. Eskolan gutxi ibili ziren, beti lanen bat izaten baitzen etxean egiteko. 12 urterekin neskame joan zen Erreenteriara. Handik Donostiara joan zen, baina kale-etxe batean ez zen hain gustura aritu eta Astigarragara joan zen azkenean han lan egitera. Bertan ezkondu zen herriko seme batekin eta geroztik han bizi izan da. Donostiara merkatura joateko ohitura hartu zuen eta azken urteetan ere horretan dabil oraindik.

Felixi Tapia Amenabar (1921-2022)



Asteasuko goi goian jaio zen Errotarrieta izeneko baserrian. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Etxebitarte izeneko baserrikoa. Hamabost senide ziren eta bera seigarrena zen. Atzetik beste bederatzi etorri ziren eta ume zaintzen ederki ikasi zuen. Hamar urte pasatxo zituela Mintegi izeneko baserrira joan ziren bizitzera. Hogeita bat urterekin Donostiara neskame joan bazen ere (La Perla pentsiora) lehenago ere Bretxan ibilia zen esne partitzen. Mitxelin fabrikari lanean zebilela ezkondu zen. Senarra Larraulgoa zuen eta Asteasun ezkondu baziren ere, Lasarte-Orian bizi izan da ezkonduz geroztik.



Asun Urretabizkaia Otamendi (1931)

Asteasuko Lizarra baserrian jaiotakoa.

Joxe Antonio Urretabizkaia Otamendi (1928)



Asteasuko Lizarraga ("Lizarra") baserrian jaioa. Aita betakoa zuen, eta ama, berriz, Larraulgoa. Hamabi senidetan bigarrena, 27 urterekin joan zen etxetik kanpora lanera, Tolosako SACEM enpresara, tornuak egitera. Handik Donostiara joan zen gero, eta ondoren Villabonara, beti ere mekaniko, eta handik hartu zuen erretiroa. Gaztetan, luistarren kongregazioko bere kideekin batera, Ernioko gurutzea eraikitzen aritutakoa da.

Juan Urruzola

Maria Angeles Uzkudun

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Asteasuko festak

- **Hizlaria(k)**: Irazu Amundarain, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: AST-001/030
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:56:26. **Bukatu**: 00:57:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Herriko festak, Asteasukoak. San Pedro eguna. Bertsolariak. Dultzaina. Villabonara ere joaten ziren.

Transkripzioa

- Festak?
- Festak o, erromerik o ze, hola dibertimendua ze izaten zan?
- Herriko festak.
- Astiasukotaz gogoratzen zea zu o Larraulgotaz?
- Larraulea ez dakit juten giñan'e.
- Astiasu.
- Asteasua bai.
- Noiz izaten zian festak Asteasun?
- San Pedro eguna, "veintinueve de junio". Ta orduntxe, ba, izaten gendun, urte guztin haren zai eongo giñan. Txikik giñan artian behintzat haikin, ta gero're asko atera... Villabonara bai jun izandu giñan ta Larraula ez dakit jungo giñan noiz o noiz, baiño...
- Ta San Pedrok zer zian Astiasun? ze eoten zan eo zer zian garai haitan festak?
- Ordun bersolarik eta hola. Gaiñantzian ze izango zan? Dultzaiña're aurrenetik izaten zan, baiño gero hoik'e jun zian. Ez dakit bukatu in zian o ze [in zian].

2. Familia eta harremanak

2.1. Emakumeak plazan; nobio kontuak

- **Hizlaria(k)**: Irazu Amundarain, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: AST-001/034
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:59:31. **Bukatu**: 01:01:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Aisia » Kultura » Bertsolaritza

- **Laburpena:** Lehen emakume bertsolaririk ez zegoen. Gizonak ere gutxi. Emakumeak tabernara ez, beti plazan. Amaritarako etxera. Neska-laguntza. Nobioa nola topatzen zen.

Transkripzioa

- Kastigatu beharrak. Uain´e askotan hala izango dira ta. Ez dakit, ez dakit. Bersolarik ez ta pentsatu´re. Gutxi izaten zian gañuntzian gizonak e, oso gutxi.

- Ta emakumiak tabernan-ta ibiltzen zian garai haitan uain bezela?

- Juten al zian ba taberna? haik plazan festetan´e. Taberna...

- Ze iten zenuen zuek festetan?

- Gu behintzat ez giñan juten, gu hantxe ibili plazan.

- Ta erromeriok o izaten zan, dantza o zeoze?

- Bai, bai, hoi bai, hoi bai. Ta aimaritan etxea. Hala!

- Korrika.

- Bai.

- Baiño batenbatek lagunduta o?

- Batzutan, beste batzutan bate be.

- Zuek hurbil bizi ziñatelako?

- Bai. Bai ta... ze? urruti bizi zianak´e ze itten zizuen? launtzen al zizuen? Akaso batebat jungo zan, baiño...

- Ez o?

- Bai, neska-laguntzia famatuba zan ordun. Uain ez dakit, baiño ordun bai.

- [...]

- Bai, bai laguntzea juten zian. Amorratzen eoten zian! Jendia... dantzan gebiltzala han begiya jota eukitzen zuen batek baiño gehiyok, ta.

- Zuek bai jakin! "Hoi beira ai zaiak, ta hau bazetorrek eta".

- Ta geo igual nahi ez dezuna etorriko zitzaizun.

- Hari ezetz esan.

- Haik´e, zein zan nausi.

- Ta, nik hoi askotan pentsatzen det e, nola... nobiyuak-eta nola billatzen zenittuen? holaxe, hola, begiyan txokotik? nola izaten zan hoi?

- Nobiyuak... festan begiya joko zitzaion neskai seguru asko.

- Mutillak billatzen zun nobiya? ez neskak nobiyua?

- Bueno, bitatik izango zien. Zuri´re gustatu beharko zazu, bestela, "alla cuidaus"! Baiño haik, haik, han beti eoten zian, han, zai.

2.2. Ezin nobioa aldatu, lehen

- **Hizlaria(k):** Irazu Amundarain, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AST-001/037
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:02:21. **Bukatu:** 01:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Lehen ez zuten nobioz aldatzen. Batekin hasi eta beti harekin, baita txarra tokatuta ere. Tratu txarren konturik ez zen aditzen, ezkutatu egingo ziren.

Transkripzioa

- Gero, uain aiñeko zeaik ez zan izaten ordun, ahaztu aldik eta, eo utzi

aldik eta.

- Behin hasi ta segi!

- Hoi da desgraziya, e?

- Beno, ona tokatu ezkeo ez.

- Zere denbora guziko ona tokatzia... Uain pentsatzen det nik e, ez dala errexha. Nik badamakizkit berrogeita sei urte alarguna ta, beno. Baiño zere denboa guztin batekin'e... Ona tokatzen bazazu, ondo, baiño erdipurdiko bat o txar bat gertatzen bazazu, eon zaittez beti hari beira.

- Jo, baiño nik uain jende askoi galdetzen diot... ze nei iruitzen zait, ba, ezkontzako momentuan, garai haitan, ni neska gaztia imajinatzen naiz han, ta bildurra emango liakela ezkontziak. Ta jendiai galdetzen diot, emakumei ,ta "Bildurrik ez al zizuen ematen ordun?" ta ezetz erantzuten die gehienak.

- Ez bait dakizu zer datorren. Ta ez dakizunian, ez dakazu bildurrik. Ordun ez genekiun eo txarra eo ona o ze izango zan, ta ordun ez dakazu bildurrik.

- Ez zenuen aitzen hola ixtori...

- Ez, holako, holako... trixteik ez uain bezelakoikan. Ordun'e gaizki pasatzen zianak izango zian. Baiño ez zan aitzen. Gaiñea, basarritan gorde ingo zan holakua izan ezkeo. Zertako aiko ziñan, parra ingo zizuen igual ta, gero bata bestiai esan ta. Ez, ez, ordun uain bezelaxe izango ziala uste det txarrak eta onak, bai andriak eta bai gizonak. Beti ez dia gizonak txarrak e, hoi're esan bihar da.

2.3. Ezkondu, behin eta betiko

- **Hizlaria(k):** Irazu Amundarain, Rufina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** AST-001/039
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:04:50. **Bukatu:** 01:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Arreorik ez zuen eraman berak, pobrea zen eta. Senar-emazteak beti ondo eramatea zaila dela dio. Lehen ez ziren apartatzen.

Transkripzioa

- Garai haitan, arreua ta izaten zan? Zuk [eman al zendun arreua]?

- Nik ez nun eman, ni pobria nitzan ta, nik ez nun ezer eaman. Ta bestia´re halaxe zan, pobria, ta gendunakin hasi giñan.

- Larraulea ezkondu ziñan.

- Bai, bai.

- Ta ordun zu´re bildurrik gabe ezkondu ziñan.

- Bai, bai, bai. Esan dizut ba, ez dakizu ze ateako zean. Uain bildurtuko nitzake e, uan, ze ateako ote dan. Ta batzuiari aitzen diet: "Ni betiako ezkondu naiz". Hoi, hoi alper-alperrik esatia da, "betiako ezkonduko naiz" hoi, nik uste det ezetz. Eo andria ez bada o gizona, batebat ateatzen da / ateatzea/ erdipurdikua. Ta balin baittuzu hogeitaz urte eo hogeita seikin ezkontzen zea hoitamarrekin, eta luzia balin bada bizitza... oso ondo balin badia, oso ondo moldatzen badia bai, baiño gaiñantzian...

- Baiño uain bado apartatzia ta ez do hola gaizki ikusiya, baiño garai haitan... bazeon... zuk ezautu zendun batenbat, hola, parejan bat,

matrimonion bat, apartatu zana?

- Ez, ez, ordun ez. Hoik modernuak dia ta eskerrak. Bestela han eon zaittez bizitza guzin aguantatzen. Igual da andria, ta igual da gizona. Alde in ta kitto, noabaitte. Nei hala iruitzen zait, e!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita hil egin zuten, gerra garaian (AST-001/003)

Anaia zaharrena ondoko beste baserri bateko mutilarekin norgehiagokan zebilen beti. Nazionalistekin joan zen anaia, gerran; zeintzuk geratu ziren etxean. Erreketeak joan ziren baserrira. Aita ezkutatuta zegoen, Aian, eta osaba eraman zuten. Aita bueltatu zenean, atxilotu, eta hil egin zuten.

2. Hiru baserritan hiru fusilatu; lapurretak (AST-001/004)

Konporta baserrikoa Tolosara eraman zuten. Hil behar zituztenak Donostiara eramaten zituzten. Inguruko baserrietatik hiru eraman zituzten, eta denak garbitu zituzten. Erreketeek oiloak ere eramaten zituzten. Eta egunero marmita bete esne eraman behar izaten zieten.

3. Ezinikusiak eta mendekuak, gerra garaian (AST-001/005)

Erreketeak anaiaren bizikletaren bila ere joan ziren. Etxea miatu, eta bat eraman zuen anaiarekin borrokan ibiltzen zen mutilak. Erreketea zen. Apustu kontuengatik anaiari gorrotoa ziola uste du, eta mendeku hartu zuela. Santa Ageda apustularia. Neskame hamar urterekin. Asteasun eskuindar bat hil zuten, komunistek eramanda. Horren errua botatzen zioten anaiari eta. Ezinikusiak, mendekua.

4. Gerra nola hasi zen; tiroketa (AST-001/007)

Gerra hasi zeneko oroitzapenak. Baserrian ez zuten ezer igarri, baina erreketeak etxera joaten hasi ziren. Senitartekoak ere baserrian zituzten. Tiroak ere bota zizkieten behin, osabak txakurrari txistu egin ziolako.

5. Anaietako bat preso eta bestea kintak harrapatu (AST-001/008)

Anaietako bat gerrara eraman zuten. Beste anaia-eta Bilbo aldean errenditu ziren, handik atxilotuta Gasteizera, eta gero kartzelara. Ondarretan egon zen 22 hilabeteen. Amari hura libre uzteko tratua eskaini zioten, baina ez zuen onartu; herriko fraide batek bai, eta gero hil egin zuten.

6. Emakumeei ilea moztu eta errizino-olioa eman (AST-001/009)

Gerra garaiko ankerkeriak. Hil zuten fraidearen arrebari ilea moztu zioten, eta Asteasuko beste emakume batzuei ere bai. Errizino-olioa. Politikan ez ziren sartzen beraiek, irratirik ere ez zuten.

7. Erreketeak ere euskaldunak (AST-001/010)

Erreketeak ere euskaldunak eta baserritarrak ziren. Aginduak nondik jasotzen zituzten ez daki. Oilaloka ere eraman zieten behin. Oilaloka zer den azaltzen du. Txitak. "Kolka" edo "loka". 22 egun pasatu behar ditu arrautzen gainean.

8. Asteasun fusilatuak (AST-001/011)

Kasu batzuk aipatzen ditu: Kortaburukoa eta Jose Leon ere eraman eta hil egin zituzten. Beste baten kasua: Villabonako lagun baten senidea arma soroan gorde zuelako hil zuten.

9. Gerra ondorengo kontuak (AST-001/013)

Asteasun hamar bat hil zituzten, eta ez politikarengatik. Bederatzi senideak elkar hartuta. Gerra ondoren, gosetea. Ez ziren etxetik ateratzen. Salbokonduktoa, inora joateko. Txekorra ez zuten eraman erreketee, zailagoa zelako.

10. Oilasko jokoa (AST-001/014)

Oilasko jokoa zer zen kontatzen du. Makilan zintzilik, baserrietan batutako oilaskoak. Herriko gazteak. Lepoa nola moztzen zieten oilaskoei.

11. Neskatoa zela gertatu zirenak (AST-001/015)

Nahi zutena egiten zietela dio. Bizikleta lapurtu zienak barkamena eskatu zion anaiari, gero; eta hark eman. Neskatoa zen bera, hura gertatu zenean. Aita ezkutatuta zegoen bitartean egin zizkieten barrabaskeriak. Eta denak ezagunak ziren, ingurukoak.

12. Neskame Sorabillara, hamar urterekin (AST-001/017)

Baserri batera joan zen neskame, hamar urterekin, Sorabillara. Astoarekin joaten zen Andoainera, esnea partitzera. Uholdeak gertatu ziren, eta baserria ibaitik gertu. Errotara bidali zuten, baina eskerrak morroiak ez zion utzi.

13. Esnea partitzen (AST-001/018)

Esnea partitzearena nola izaten zen. Marmitak. Eskaileretan gora, esnea eramaten. Neurria. "Letxeroa", esnea biltzen zuena. Hiru urte egin zituen Sorabillan.

14. Eskola publikoetara; gutxi ikasi zuen (AST-001/020)

Eskolara gutxi joaten ziren. Beste senide denak eskola batera joan ziren eta bera herriko eskolara. Besteak jo egiten zituzten, eskuan txapa bat jarrita. Gutxi ikasi zuen. Neskak bakarrik egoten ziren, maistrarekin. Dena erdaraz, ez jakin arren. Zigorrak.

15. Baserria umetan eta eskola (AST-001/022)

Baserrian umeak zertan ibiltzen ziren. Artoa, soroak, itaurrean... Aita zenak esaten ziena. Eskolako kontuak. Irakurtzen ikasi zuen. Eskolako liburuak. Katona, kartila...

16. Jaunartzekoa, egun ederra (AST-001/024)

Dotrina ez du asko gogoratzen, jaunartzea bai. Egun ederra pasatu zuten. Eliza ondoko etxea. Eliza ez zegoen urruti, baina aldapa zegoen. Goizeko seietan, mezara; ilunetan, gari lastoa piztuta.

17. Mezak, misioak eta bekatua (AST-001/026)

Meza latinez izaten zen. Aldarea. Sermoiak. Misioak, Garizuman. Ezkondu ondoren ere, Errezilgo fraide bat etortzen zen. Dena bekatua. Ikaratuta joaten ziren etxera.

18. Lehen umea jaio eta senarraren ama hil, bateratsu (AST-001/041)

Senarraren baserrira ezkondu zen; haren ama elbarria, ohean. Agonia jotzen zen, norbait hiltzean. Bera lehen umea izatean oso gaizki egon zen, eta herrian zalantza piztu zen, bietako zein hil ote zen. Medikua joaten zen, erditzeetan.

19. Ogia egiten; beheko sua eta taloak (AST-001/043)

Ogia nola egiten zuen. Harrotzeko zer erabiltzen zuen. Irina ekartzen zuten errotatik; zahia. Ogi zuri ederra. Ekonomika. Su baxua ezagutu zuen. Laratza. Amaren taloak, mehe-meheak. "Talo mantenua" eta "talo-burniya".

20. Taloa eta esnea; errotak (AST-001/045)

Talo asko jandakoa da. Ogia eguerdian. Taloa eta esnea. Goserik ez, baserrian. Txerria hiltzen zuten. Pello Errotaren etxera joaten ziren irinetara. Asteasuko errotak.

21. Etxea beti umez beteta; jolasak (AST-001/047)

Ganaduarekin belarretara, garotara... lan asko egiten zuten. Bederatzi senide ziren. Umea ekarri, eta kasurik ez egitea. Ume mordoa ibiltzen zen beti etxean. Txirrista modukoa zuten, eta neguan zabua. Sokasalto. Irudimena. Harrapaketan, elkarri joka... jolasak. Neska-mutilak elkarrekin.

22. Hamabi senide Lizarra baserrian (AST-003/002)

Joxe Antonio 1928ko maiatzaren 30ean jaio zen. Aita Lizarra baserrikoa zuen eta ama Larraulko Ugalde baserrikoa. Hamabi senidetan bigarrena zen; zaharrena arreba du.

23. Txikitan eskolara joateko aukerarik ez; soldadu joan aurretik gau-eskolan (AST-003/003)

Eskolan ez da sekulan ibili. Soldadu joan behar zuenean arrebak firmatzen erakutsi zion. Hogeitaz zituela gau-eskolara joan eta musean ibiltzen ziren. Bere anaiak, berriz, Zumarragako fraideetan ibili ziren. Joxe Antoniok etxeko lanak egin behar izaten zituen. Ez zuen eskola joaten zirenen inbidiarik pasa. Gau-eskolan bere kintakoak zeuden eta besteak bera bezalaxe zeuden. Gau-eskola ordaindu egin behar izaten zen. Gau-eskolako maisua umeen maisu bera zen.

24. Anaiak morroi eta arrebak neskame (AST-003/004)

Lursailak Iturriotzen zituzten, baserritik urruti. Anaiak morroi eta arrebak neskame bidaltzen zituzten. Arreba bederatzi urte zituela neskame bidali zuten. Joxe Antoniok beti etxean lan egin du.

25. Baserriko behiak nola zaintzen zituzten (AST-003/005)

Baserrian bost behi zituzten. Mahaian 15 lagun bildu ziren behin baino gehiagoetan. Behiak esnetako erabiltzen zituzten. Normalean bi behi uztarrirako erabiltzen zituzten. Uztarrian zebilen behiak esne gutxiago ematen zuen. Behiak nola zaintzen zituzten kontatzen du. Mendiko belarra ematen zien jateko.

26. Garai bateko belarra gaurkoa baino hobea (AST-003/006)

Baserri ona zuten baina maizterrak ziren. Hautsa eta simaurra noiz eta nola botatzen zituzten kontatzen du. Hautsa kanpotik ekartzen zuten eta oso belar ona ateratzen zen, orain ez bezalakoa. Garai batean lana asko eta poliki egiten zen.

27. Artoa nola egiten zuten (AST-003/007)

Artoa egiteko soroa nola prestatzen zuten azaltzen du; maiatzean izaten zen giro ona bazen, behintzat. Auzolanean egiten zuten. Lana bukatu ondoren kontutan ibiltzen ziren.

28. Elkarri laguntzeko borondate handia (AST-003/008)

Elkarri laguntzea ohikoa zen garai haietan. Goldearekin lurra jiratu behar zenean edo mendian belarra asko moztu behar zenean ondokoen laguntza edukitzen zuten. Jendeak borondate handia zeukan. Orain gauzak asko aldatu dira.

29. Artoa eta babarruna egiten (AST-003/009)

Artoa egiterakoan auzo guztia biltzen zen. Lan haietan zein tresna erabiltzen zituzten kontatzen du. Artoa egiten hasteko marka bat jartzen zuten. Lau arto ale eta bi babarrun ale zulo bakoitzean jartzen zituzten. Aitona eta aita errezatzen ibiltzen ziren euria egiteko. Arto asko biltzen zuten.

30. Baserriko gauzak jaten zituzten (AST-003/010)

Orain babarruna luxua da, baina orduan ez. Garai batean oilaskoak saldu eta sardinak ekartzen zituzten etxerako. Postrea arroz esnea izaten zen. Jaitan babarrun zuria edo garbantzuak jartzen zituzten. Hildako txerriekin egindako txorizoa edo ere izaten zuten.

31. Orain baino luxu gutxiagokin bizi ziren (AST-003/011)

San Pedro bezpera batean bere amari gertatutakoa kontatzen du: bi oilo ostu zizkien eta amak negar handiak egin zituen. Arrautzak eta babarrunak saskian jarri eta ama saltzera joaten zen. Diru harekin etxekeok behar zituzten gauzak erosten zizkien.

32. Gutxi zeukaten, baina aseguruak ordaindu ordeztatu egiten zuten (AST-003/012)

Anai zaharrena zenez arropa berriak berarentzat izaten ziren. Igandean alkandora garbia jantzi eta aste osoan erabiltzen zuten. Orain aberastuta bizi garela dio. Familia handia izan arren ez zuten inongo asegururik. Erreztatu egiten zuten eta Jainkoak ikaragarri laguntzen zien.

33. Garia egin eta bildu (AST-003/014)

Familia handietan seme alabak neskame eta morroi bidaltzen zituzten. Etxean garia ere egiten zuten, azaroan. Maiatzean garia bildu behar izaten zen, heldu bezain pronto. Lan horietan ere auzolanean aritzen ziren. Lasto bala egiten zuten eta eguzki berotan hura jo eta jo ibiltzen ziren. Hautsez beterik itzultzen ziren eta dutxa antzeko batean garbitu. Gari garbitzailea ibiltzen zen makina batekin baserriz baserri. Hari ez zitzaion dirutan ordaintzen.

34. Gaztetan luistarren kongregazioko kide (AST-003/016)

Hilero kongregaziora joan behar izaten zuten. Asteasuko Elizako kanpaia oso berezia omen da eta hura jotzen ere ibiltzen ziren. Jende asko joaten ziren kongregaziora eta apaiza gustura zegoen. Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren elizan. Luistarren kongregazioko lehendakaria izan zen. Zinta zuria eramaten zuen. Dotore jantzita joaten ziren.

35. Kongregaziora konfesatuta eta baraurik joan behar (AST-003/017)

Asteasun hiru apaiz egoten ziren konfesatzen. Elizara baraurik joan behar izaten zuten. Amak goizean denei kafea emateko ohitura zuen, gosaldutik aurretik. Hura hartuz gero ezin zen kongregaziora joan.

36. Asteasuko sei bailarak (AST-003/018)

Asteasun sei bailara daude. Bailara horien izenak ematen ditu. Joxe Antonio Elizmendi bailarakoa da.

37. Apustuak gazteen artean (AST-003/019)

Bailara guztietakoak ongi konpontzen ziren. Gazteen artean arazorik sortzen bazen apusturen batekin konpontzen zuten. Segur apustu asko egiten ziren. Bi hilabetez prestatzen ibiltzen ziren. Apustua egin zuen gizon baten istorioa kontatzen du. Orduan apustulariak ez zituzten medikuek prestatzen. Behin apustulari batek arrautzak ardotan nahasita nola edan zituen kontatzen du.

38. Apusturik ez du sekula egin proposamenak izan arren (AST-003/020)

Joxe Antoniok ez du sekulan apusturik jokatu nahiz eta segalari ona izan. Ez zituen etxean disgusturik eman nahi. Behin aitona batzuk proposamena egin zioten baina ezetz esan zuen.

39. Txerria hil ondoren nola gorde (AST-003/021)

Etxeko lursailetan garoa eta belar ona zituzten. Egiten zuten guztia jateko izaten zen. Gerra ondorengo arrazoinamendua eta estraperloa gogoratzen ditu. Txerria nola hil eta erretzen zuten kontatzen du. Orduko txerriak gizenagoak izaten ziren. Gatzetan jartzen zuten kutxa baten barruan. Beranduago piper hautsarekin igurtzi egiten zuten. Txorizoak eta solomoak izugarri estimatzen zituzten.

40. Sardina zaharrak eta baratxuri-zopa gosaltzeko (AST-003/022)

Ardiak ere hiltzen zituzten, Tolosatik ekarritakoak. Eltzean sartzen zuten beheko sutan babarrunak prestatzerakoan. Sardina zaharrak eta baratxuri-zopa gosaltzen zituzten. Arrautzak zirenean tortilla ere jaten zuten.

41. Hernioko gurutzea eraikitzen (AST-003/023)

Hernioko gurutzea eraikitzeko proposamena apaizarena izan zen. Asteasutik eta Aiatik joandako luistarrek bizkarrean eramaten zuten karga Hernioraino. Hiru astokin ura Zelatunetik barrena eramaten zuten. Bazkaria "Eldu" artzainak jartzen zien. Oso giro onean egin zuten lana. Beranduago beheko txabola eraikitzeko helikopteroak erabili zituzten.

42. Hernioko gurutzea inauguratu (AST-003/024)

Hernioko gurutzea inauguratu zutenean jende asko bildu zen. Meza egin zuten.

43. Ilobaren jaunartzean botatako bertsoa (AST-003/025)

Joxe Antonio bertsozalea da. Donostian bizi duen anaia ona da bertsoan. Aitona omen zuten bertsozalea. Behin bakarrik jarri ditu lau bertso jaunartzea egin zuen iloba batentzat. Bihotzez asmatutako bertso haiek kantatzen ditu

44. Lasarte bertsolaria gustatzen zaio (AST-003/027)

Irakurtzen ari den liburuak erakusten ditu. Lasarte Andazarraten ikusi zuen lehen aldiz, hogeitau urte zituela. Lasarte bertsolari fina eta pobrea da. Haren bertsoez hitz egiten du.

45. Bertsolariak gustatzen zaizkio (AST-003/028)

Uztapide eta Basarri bertsolariak gustatzen zaizkio. Haien lanez hitz egiten du. Festetara etortzen ziren. Asteasun bertan bazen bertsolari bat.

46. Txerria hil eta gero opariak ezagunentzat (AST-003/029)

Garai batean txerria hiltzen zenean opariak banatzen ziren baserri ezagunetan. Etxeetara iristen zirenean jateko zerbait eta txanponen bat ematen zieten. Gero besteek emandakoa itzultzen zuten, guztiek apaizak izan ezik.

47. Lehen apaizei beldur handia zitzaien (AST-003/030)

Apaizari ikara zioten. Kolean bere parean pasatzea ez zuten nahi izaten. Sotana kendu zuten ezkerreko, errespetua galdu zaie. Apaizak dotrina ikasten ez zutenak nola zigortzen zituen kontatzen du.

48. Baserria utzi eta fabrika batera lanera (AST-003/031)

Hogeita zazpi urte zituela baserria utzi zuen. Sacen enpresan lanean hasi zen. Makinak egiten zituzten. Egunean zazpi duro eta hiru pezeta irabazten zituen. Lantegian lana egiten nola ikasi zuen kontatzen du.

49. Lana aldatu zuen etxetik gertuago egoteko (AST-004/001)

Lantegi batean lanean zegoela beste lan proposamen bat egin zioten. Egunean 36 duro irabazten zituen eta 40 eskaini zizkieten. Mekaniko bezala egiten zuen lan. Donostiako lantegiko nagusiak soldata igotzea proposatu zion baina nahiago izan zuen bizi zen lekutik gertuago zegoen lana. Denbora gutxi beranduago Donostiako tailerra itxi egin zen.

50. Donostiara lanera joateko denbora asko galtzen zuen (AST-004/002)

Donostian lan egiten zuten langile gehienak euskaldunak ziren. Tailerra Grosen zegoen. Ibilbide luzea zuen haraino iristeko. Garraiobideak ez ziren oraingoak bezalakoak.

51. Egun berezietan Asteasuko elizako kanpaia jotzen zuten (AST-004/003)

Asteasuko elizan kanpaia jotzen zuen. Hiru mutilen artean jotzen zuten, indarra behar zelako. Egun berezietan bakarrik jotzen zuten. Egun bakoitzean modu desberdinean jotzen zen. Lan haren ordainetan hamaiketakoa eta txanpon batzuk ematen zizkieten. Kanpaia nola jotzen zuten kontatzen du.

52. Tisikoen ospitalea; hildakoak kanposantura eramaten (AST-004/005)

Andazarraten ospitalea zegoen eta bertan tisikoak egoten ziren. Egunero norbait hiltzen zen eta haiek kanposantura eramaten ibiltzen ziren, txanpon batzuk irabazteko. Leku txarrean jarri zuten ospitalea, itsasoaren hezetasuna gaixoentzat txarra zen eta. Kanpoko asko etortzen ziren. Bisitan etortzen zirenentzat autobusa egoten zen. Emakumeak eta gizonezkoak banatuta zeuden. Gorputzak bizkarrean eramaten zituzten kanposantura. Herriko hildakoak kanposantura kongregaziokoek eramaten zituzten.

53. Asteasu eta Aian desberdin hitz egiten da (AST-004/006)

Asteasutik Aiara euskara asko aldatzen da, Aian "za" asko esaten dute. Bilbotik zetorrela Elgoibarren apaiza bat kotxean hartu zuten eta beraien euskara asko gustatzen zitzaiola esan omen zien. Aian hitza desberdinak erabiltzen dituzte.

54. Gerra garaian, soldaduei esnea partitzen (AST-004/009)

Bederatzi urte zituela, gerra ezagutu zuen. Soldaduak etxeko ukuiluan eduki zituzten. Haiekin esnea banatu ondoren gertatu zitzaiona kontatzen du.

55. Aitak gripea harrapatu baina bizirik atera zen (AST-004/010)

Aitak erdaraz ongi egiten zuen, Burgosen ibilia zen eta. Burgosko lana bukatu ondoren etxera itzuli zen eta soldaduskatik libre atera zen. Gripea harrapatu zuen izugarrizko izurrite bat izan zen garaian baina bizirik atera zen.

56. Soldaduekin izandako arazoak (AST-004/011)

Soldaduak etxean izan zituzten eta aldameneko baserritik ekartzen zuten haientzako esnea, etxean nahikoa ez zuten eta. Behin guardiak nola gelditu zituzten gogoratzen du. Arrebari tiro ere egin zioten.

57. Hildakoak eta ihes egindakoak Asteasun (AST-004/014)

Asteasun hiru gizon nazionalista nola hil zituzten gogoratzen du. Nafarrak ziren hilketa horiek egin zituztenak. Asteasuko askok alde egin zuten egun haietan. Joxe Antonioren aita karlista egin zen, ondoko karlista batek egurra emateko.

58. Gerra aurretik boto batek asko balio zuen (AST-004/015)

Joxe Antonioren izeba Donostian bizi zen eta familia izan zuen botazio egunetan. Amona Donostian zegoen egun haietan eta kotxez bila joan zitzaien Asteasura ekarri eta botoa eman zezan. Amona karlista zen.

59. Errotara ezkutuan gerra ondoren (AST-004/018)

Gerra ondoren hasi ziren txerriak ezkutuan hiltzen eta. Errotara iluntzen zuenean joaten ziren. Alkizan errota zegoen. Behin Larrauldik barrena errotara zihoala gertatutakoa kontatzen du. Donostiako izebak irina bila etortzen zitzaizkien.

60. Izen askokoa (AST-017/002)

Izen asko hartzen ditugu, gure herriak moduan (Euskal Herria, Euskadi, Pais Vasco navarro...). Joxe izena jarri ziotenez, Joxe esaten diote Asteasun; familian Joxetxo, Bilbon Joseba, eta gero berak Bernardo izena hartu zuen.

61. Ama, maistra izandakoa; aita, arotza (AST-017/004)

Aita arotza zen eta ama maistra izandakoa. Ama unibertsitatera joatekoa zenean, gerra atera zen eta gerra ondorengo maistra moduan aritu zen Asteasuko auzo batean. Ezkondu eta gero, ez zuen maistra lanik egin. Udaletxean kontabilitatea lan batzuk egin zituen. Gerrak gaur eguneraino eragiten duen kaltea ekarri zuela azaltzen du.

62. Etxean liburuak beti (AST-017/005)

Ama maistra izanik, eta aitak ere zerbait irakurtzeko ohitura zuenez, bazituzten liburuak etxean. Liburu gehien aitona zituela dio; esaterako, Cervantesen bi liburu, "Las ventajas del tabaco" izeneko bat... Amak beti oparitzen zizkion liburuak.

63. Umetan irakurritakoak, Pierre Loti eta Dickens (AST-017/006)

Gaztetxoa zela irakurri zituen bi liburu aipatzen ditu: Pierre Lotiren "Erramuntxo", bata; Dickensen liburu bat, bestea.

64. Eskolako oroitzapen oso ona (AST-017/007)

Eskolan gazteleraz egiten bazuten ere, euskara zen hizkuntza nagusia beraientzat. Lotura eta eskaera handirik gabeko eskolak ziren. Oso oroitzapen ona dauka eskolaz; asko gustatzen zaio estudiatzea.

65. La Salleko aldizkaria (AST-017/008)

Batxilergoko seigarren urtean, La Salle ikastetxeko aldizkarian idazten hasi zen. Bilbon Gabriel Aresti egotea oso garrantzitsua izan zen bera literaturan bete-betean sartzeko.

66. Andoaingo liburutegian lagunekin (AST-017/009)

1964an Andoainera joan ziren bizitzera. Andoaingo lagun onak aipatzen ditu. Hango liburutegian etengabe ibiltzen ziren.

67. Rikardo Arregiren hileta (AST-017/010)

Rikardo Arregiren hiletan ikusi zuen lehenengoz Gabriel Aresti. Ariane Kamio kazetariak elizkizun haren grabazioa topatu zuen. Oso berezia izan zela dio, apartekoa: txalaparta, dantzariak, Aresti erreztatzen...

68. Bilbon berriz jaio zen (AST-017/011)

Xabier Leteren kantez inpresionatu egiten zuten. Bilbon berriz jaio zela dio, euskaldun idazle moduan. Anaitasunari idazten hasi zen, Anjel Zelaietak eskatuta. Ekonomia ikasten aritu arren, erabakita zeukan guztiz beste bide bat egitea.

69. "El Norte de Castilla" egunkariko saria (AST-017/014)

Euskaraz idatzi zitekeenik ez zitzaion burutik pasa; ez zeukan inguruan erreferentziarik. "El Norte de Castilla" egunkariko lehiaketara lan bat aurkeztu zuen eta argitaratu egin zioten.

70. Gabriel Aresti (AST-017/015)

Gabriel Aresti, idazle eta poeta izateaz gain, oso eragilea zen. Euskal Herriko indar faktikoekin oso gaizki konpontzen zen. Erlijio eta karlismotik datorren gizartea sektarioa zela azaltzen du eta Gabriel Aresti bazterrean geratu zela.

71. Ustela aldizkaria, su txiki hura (AST-017/016)

"Ustela" aldizkaria sortu zuen Koldo Izagirrerekin. Bere anaiekin kartzelan egona zen Koldo. Bien artean egindako proiektua izan zen. Txema Larrea aipatzen du; "Txotxas" esaten zioten, euskal kulturari su txikiak egiten ari zirela. "Ustela" ere horixe izan zela dio, txotxekin egindako su txiki bat.

72. Literatura, sailkatzeko zaila (AST-017/018)

Idazlea ez da egiten hizkuntzaren lerro batean. Literaturari "moderno" esatea ez zaio egokia iruditzen; hori baino konplexuagoa dela dio. Bera Bilboko giroan erraz murgildu zela kontatzen du.

73. Xabier Quintana, alfabetatze-eskolak eta hitzaldiak (AST-017/022)

Bilbon alfabetatu zen euskaraz. Xabier Quintanak eragin handia izan zuen berarengan; eragilea zela dio. Orduko bizipenak kontatzen ditu. Hizkuntzarekin batera, kulturari lotutako hitzaldiak antolatzen zituzten Quintanak eta bere kideek. Lopategi eta Landart joan zirenekoak kontatzen ditu.

74. "Borobila eta puntua" lanaz (AST-017/023)

"Verdes" argitaletxeko zuzendari eta langileak oso lagunak izan ditu. Orduan, (Anjel) Zelaieta egoten zen han eta beraiek asko ibiltzen ziren bertan. Antzerki lan txiki bat idatzi zuen "Borobila eta puntua" eta hantxe argitaratu zuen. Oso esker onekoa dela dio. Gabriel Arestik animatu egiten zuen eta errieta egiten zion, idazkerari zegokionez.

75. Soldadutzan ikasitakoak (AST-017/024)

Soldadutzan asko ikasi zuen. Unibertsitateko ikasleek soldadutza bereziak egiteko aukera zuten, alferrez moduan; berak uko egin zion horri. Aurreneko egunean eta handik hilabete gutxira gertatutakoa kontatzen du.

76. "Ziutateaz" idatzi aurretik gertatutako gauza izugarriak (AST-017/026)

Errealitatea beti haratago dagoela dio. Soldadutzan zegoen bitartean gauza izugarri asko gertatu zirela dio, eta bere bizitzan eragin handia izan zutela, tartean Rolando kafetegiaren kontrako atentatua. "Ziutateaz" liburuak sufrimendu handia eragiten dio eta ez du irakurtzen.

77. Bilbora itzuli eta egindako lantxoak (AST-017/029)

Bilbon bigarren aldiz ezarri eta lehengo lagun batzuekin berriz bildu ostean, Pott banda osatu zuten. Banketxea utzi eta gero egin zituen lantxoak azaltzen ditu. Leioako liburu-dendaren sorreraren istorioa kontatzen du.

78. Ume biri euskara eskolak ematen (AST-017/030)

Rosa Rozadilla izeneko emakume batek lana eskaini zion; bi ume zaharrenen tutore lanak egin zituen, ikastolarako sarbidea lortu zezaten. Ondoren institutuan lan egin zuen bi urtez eta gero Bartzelonara joan zen.

79. Pott aldizkaria (AST-017/031)

Aldamarka edo nekez, Pott aldizkaria atera zuten. Inuzenteak zirela dio; uste zuten aldizkaria lau haizetara zabalduko zela. Orduko bizipenak kontatzen ditu. Elkarri asko erakusten ziotela uste du; taldekide bakoitzaren ekarpenak aipatzen ditu.

80. Pott aldizkariak zerbait apurtu zuen (AST-017/033)

Ustea, gogoia eta sasoia zituztelako egin zutela Pott aldizkariarekin aurrera kontatzen du. Zerbait apurtu zutela dio; ez ziren fededunak.

81. Literaturaren autonomia aldarri (AST-017/034)

Literaturaren autonomia aldarrikatzen zuten, inguruak baldintzatuta. Orduko politikariek kultura beren zerbitzurako zegoela uste zutela azaltzen du. Literatura bide horretatik egitea abiapuntu txarra dela dio.

82. "Etiopia" lana (AST-017/035)

Lan bat idazten ari da, bere literaturaren ildoak argiki agertzen dituen.

"Etiopia" lanari buruzko hainbat kontu azaltzen ditu.

83. "Hautsi da anphora" eta "Etiopia" (AST-017/036)

Ruper Ordorika eta biak oso lagun minak ziren. "Hautsi da anphora" diskoa ateratzea oso zorte handia izan zen beretzat, "Etiopia" liburuak kantu hartan iraungo duelako. Poesia eta kantua erabat lotuta daudela azaltzen du.

84. Pott aldizkariarekin bukatuta, Bartzelonara (AST-017/039)

Bartzelonara joan zen, aldi bat bukatu zelako. Azkenengo Pott-en alea trauma izan zen beraientzat. Ordukoaren azalpena ematen du. Arabiera ikasten aritu zen bi urtez, eta ondoren, filosofia ikasketak egin zituen.

85. Haur literaturara Juan Karlos Egileorren eskutik (AST-017/040)

Ipuin bat kontatzen du, beharrari buruzkoa. Beharrak eraginda hasi zen haur literatura idazten. Juan Karlos Egileorrekin topo egin zuen. Anekdota bat kontatzen du.

86. Haur literaturako lehenengo lanak Egileorrekin (AST-017/042)

Juan Karlos Egileorren etxeak inpresio handia egin zion. Hark proposatu zion umeentzat zerbait egitea. Lehenengo lanak "Nikolasaren abenturak eta desbenturak" eta "Ramuntxo detektibea" izan ziren.

87. Euskararen funtzionalitateetako bat, umeentzat izatea (AST-017/044)

Telebista lehenengo aldiz hasi zenean, Xabier Quintanak egin zuen "Pinpilinpauza" izeneko saioa umeentzat. Anekdota bat kontatzen du. Hizkuntzak funtzionalitate bat hartu zuen, umeentzat baliagarri izatea, eta berak ere lan hori egin zuen.

88. Irratietarako nobelak idazten (AST-017/045)

Irratietarako nobelak idatzi zituen. Bilboko Herri Irratirako egin zituen, Leopoldo Zuazak eskatuta. Anekdota bat kontatzen du. Euskadi Irratirako ere egin zituen gero.

89. "Bi anai" eta "Camilo Lizardi..." ipuina (AST-017/047)

"Bi anai" idatzi duen libururik tristeena izan daitekeela dio. Beste poetika bat aurkitu zuen. Irratirako nobelak idazten ari zela sortu zuen "Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena)" ipuina, gero Donostia saria jaso zuena.

90. "Obabakoak" lanaz (AST-017/048)

"Obabakoak" liburuari buruz hitz egiten du. Obaba sortu zuen, munduan ez dagoen leku bat, eta horrela oztopo tekniko asko gainditu zituen. Literaturari buruz bere teoria propioa eraiki zuen, eta hori azaltzen da liburu horretan.

91. "Obabakoak" Espainiako Sari nazionalera (AST-017/049)

"Obabakoak" liburuak ere zorte kolpea izan zuela dio; kasu honetan Mercedes Monmanyren eskutik. Bere ipuin bat irakurri ostean, Espainiako sari nazionalera aurkezteko proposamena egin zion Mercedesek.

92. "Obabakoak" Espainiako Sari nazionalera II (AST-017/051)

Asteasuko lagunei Mercedesek dei egin ziola kontatu zien eta hortxe utzi zuen kontua, berriz ere deitu zion arte. Nola edo hala itzulpena egin eta aurkeztu zion.

93. "Obabakoak" hizkuntza askotara itzulita (AST-017/052)

"Obabakoak" hogeita sei hizkuntzatara itzuli dute. Espainiako sari nazionala jaso ondoren, liburua hainbat hizkuntzatara itzultzeko eskaera-gutunak jaso zituen.

94. "Obabakoak" Europako sariketara aurkeztu zutenekoa (AST-018/002)

"Obabakoak" lanarekin Espainiako Sari Nazionala irabazi eta gero, Europako literatur sariketara eraman zuten. Rafael Conde zenez defendatzailea, ez zuen saririk espero. Epaimahaikideen arteko eztabaidak kontatzen ditu.

95. "Obabakoak" Europako sariketara aurkeztu zutenekoa II (AST-018/004)

Europako literatur sariketan, epaimahaiak frantziar lan bat saritzea erabaki zuen, baina aukeratuaren berri eman zuen idazle ingelesak, bere iritzia eman zuen publikoki: "Obabakoak" sariduna izan zedin nahi zuen.

96. Zortea existitzen da (AST-018/005)

Zortea existitzen dela dio, zirkunstantziala delako. Zorteari buruzko azalpena ematen du.

97. Azkenengo zortea (AST-018/006)

Azkenengo zortea: Espainiako Letren Sari Nazionala.

98. Zorte txar bat (AST-018/007)

Bi orduz, haur literaturaren Espainiako Sari nazionala irabazi zuen. Ordukoa kontatzen du.

99. Idazle hasiberriei aholkuak (AST-018/009)

Idazle hasiberriei aholkua: irakurtzea. Idazteko gogo duenak horretara jarri behar du.

100. Nobela idaztea lan nekeza da (AST-018/012)

Anekdotak bat kontatzen du, nobela bat egitea nekeza dela azaltzeko.

101. "Behi euskaldun baten memoriak" lanaz (AST-018/015)

"Behi euskaldun baten memoriak" noiz eta nola idatzi zuen kontatzen du; aldi lasai eta zoriontsuan idatzi zuen. Gehien saldu den bere liburua dela uste du.

102. Idaztetik bizitzea (AST-018/016)

Idaztetik bizi izandakoak oso gutxi izan direla dio. Beste leku batzuetan ere horrela izaten dela dio. Familiaren babesa izango zuela bazekielako eta bestelako lanei dien mespretxuarengatik aukeratu zuen idazle ofizioa.

103. Nola irakatsi literatura? (AST-018/018)

Literatura baino lehenago, idaztea eta irakurtzea dago. Irakurtzen erakutsi beharko lukete, eta irakasleak izan beharko luke lurralde horretan gidari bat. Literaturaren teoria ez dagokie adin horretako gazteei.

104. Literatura irakasteko baliabidea: grabazioak (AST-018/020)

Adibide bat ematen du: literatura galegoa azaltzeko, egokia izan daiteke autore bati egindako elkarrizketa zuzenean ikustea. Pilotarekin ere adibidea jartzen du.

105. Tokiko istorioa beti da unibertsala (AST-018/022)

Adibide batekin adierazten du tokiko istorioak beti unibertsalak direla, nahiz eta hizkuntzak lokalak izan.

106. Kulturari balorea emateko premia (AST-018/023)

Kulturari dagokion balorea emateko premia dagoela azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com